

# SAGARDO LEHIAKETAK

*Apustuak egiteko hain zalea den gure herri bonetan ez da barritzekoa sagardoarekin ere lehiaketarik izatea. Tradizioa bada baina, zein baino zein hobea den esatea zaila dela eta, sagardogileek ez dituzte oso gustoko txapelketa horiek*

## DASTATZEKO AUKERA

**MIREN IBARLUZEA**

**E**Z DA PAHA IMAHINATZEA SAGARDO LEHIAKETAK AIZOKO SAGARDOGILEEN ARTEKO KONFETENTZIAGATIK SORTU ZIRELA, zeinek sagardorik onena zuen apustua egin, horretan adituak bildu eta irabazle bat erabakitzen zuten. Askotan ohorea baino ez zen jokuan egoten zena.

Euskal Herriko lehen sagardo lehiaketa ofiziala Astigarragako Ergobia auzan egin zen. Hasiera batean, epaimahia lauzpabost lagunez osatuta zegoen eta sagardo bakoitzari leku 10era bitarteko puntuazioa ematea zitzaien. Baina horrek nahaspila dexente sortu zituen, batzuetan izugarriko alde egoten baitzen epaimahikideek sagardo berari emandako puntuazioen artean. Hori dela eta, puntuazioa Setik 10era bitartean izango

zela erabaki zen. Gaur egun egiten diren lehiaketetan zortzi izaten dira epaimahikideak. Tragoska batetik bestera zerbaiz jan beharra dago eta, horregatik, sagardo diferentia hobeto dastatzeko, arrautza egosiak eta ogia eskaintzen zaizkie epaimahikideei.


Sagardogile bakoitzak 50 litro botila eraman behar ditu. Epaimahikideek dastatu eta publikoari ere ematen zaio aukera ondoren egiten den festa. Baina gaur egun sagardogileek ez dituzte oso gustoko lehiaketa horiek. Sagardogile Elkarteak teknikoak den Miguel Angel Saenzek esplikatzeko duenez gustoa beti subjektiboa izaten da eta subjektibitatean oinarritutako horrelako sailkapenak kaltegarriak izan daitezke. «Orain dela hogeiren bat urte ba zegoen ohihurtu hori, «adierazten du Saenzek- eta udaletxeek eta Elkartearen artean antolatzen ziren lehiaketak. Kontuan hartu behar da sagardorako

garai txarrak zirela, eta lehiaketek publizitate ona egiten zutela uste zen. Zortzi edo hamar aditu bildu eta trofeo batzuk banatzen ziren. Baina gaur egun Elkarteak ez ditu beharrezko jotzen, are gehiago, kaltegarria izan daitekeela uste dugu.


Elkartea sagardo-degustazioen alde dago eta urtean, irailean, bi antolatzen ditu, Donostian eta Bilbon.

Sagardogileek antolatzen dituzten sagardo egunak gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari dira. Donostian estropaden bezperan izaten da sagardo eguna eta Bilbon iraileko hirugarren larunbatean egiten da. Izaten dira ere beste herri batzuetan. Guztietan dastaketa dohainik egiten da. Sagardoa publikoarengana hurbildu eta publizitatea egiteko biderik onena delakoan ohihurtu horrekin segitzeko asmoa dute.

...



ARCHIVO




**ZABALA**  
Sagardotegia

(Igande gauetz irekia)

Garagartza Baserría  
Tel. 69 07 74  
ADUNA




**Katxarro**  
SAGARDOTEGIA



San Fausto, 17 • Tfnoa. 658 29 67  
48230 ELORRIO (Bizkaia)

**AMONDARAIN** sagardotegia



Gure Ametsa-Santa Luzi auzoa

Telefonia: 65 33 54 TOLOSA

**BIDEBITARTE**



Astegun eta asteburutan zabalik

Astelehontan ixten dugu.  
Arragua Auzoa OIARTZUN Tel. 49 21 01